

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZUIAKO UDALA

#### **Euskara ikasteko 2019ko diru-laguntzak deitzen dituen Zuiako Udalaren Osoko Bilkuraren 2019ko apirilaren 11ko erabakiaren laburpena**

BDNS (Identif.): 462936

Diru-laguntzak emateko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3 eta 20.8 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da, eta horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen Datu-basean kontsulta daiteke, <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>.

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

16 urtetik gorako pertsonak, ikastaroa hasi baino urtebete lehenagotik, gutxienez, eta ikastaroaren azken egunera arte (azken hau barne) Zuiako udalerrian etenik gabe erroldatuta badaude.

#### **Bigarrena. Xedea**

2018ko urriaren 1etik 2019ko irailaren 30era bitartean euskaltegietan edo HABEk homologatutako zentroetan eta 2019. urtean barnetegi homologatuetan egindako ikastaroak.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Udalaren Osoko Bilkurak 2019ko apirilaren 11n onartu zituen diru-laguntzak eta ALHAOn argitaratuko dira.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Partidaren diru-zuzkidura 10.000 eurokoa da.

Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa ikastaroaren matrikula-zenbatekoaren ehuneko 75 izango da, eta gehienez ere 450 euro urtean.

#### **Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

Hilabete bat ikastaroa amaitzen denetik.

#### **Seigarrena. Beste datu batzuk**

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak [www.zuia.eus](http://www.zuia.eus) orrian (Izapideak/Diru-laguntzak) edo Oinarrietan azaltzen dira.

Murgian, 2019ko apirilaren 11n

*Alkate-Udalburua*

*UNAI GUTIERREZ URKIZA*